

19 | 20

**EUSKADIKO  
ORKESTRA  
SINFONIKOA**  
ORQUESTA  
SINFÓNICA  
DE EUSKADI

**ROBERT TREVIÑO**  
ZUZENDARI TITULARRA  
DIRECTOR TITULAR



EUSKADIKO  
ORKESTRA



**Bartok**  
**Mahler**  
**Chamizo**  
**Holst**  
**Erkoreka**  
**Copland**  
**Ravel**  
**Berg**  
**Bruckner**  
**Lalo**  
**Saint-Saëns**  
**Beethoven**  
**Berlioz**  
**Rimsky-Korsakov**  
**Brahms**  
**Urquiza**  
**Dvorak**

Mojca Erdmann  
Bilboko Korál Elkartea  
Vocalia Taldea  
Kalakan  
Juanjo Mena  
Julian Bliss  
Frank Peter Zimmermann  
Jennifer Johnston  
Corby Welch  
Edo de Waart  
Jonathan Roozeman  
Pinchas Steinberg  
Varvara  
Mei-Ann Chen  
Yulianna Avdeeva  
Augustin Hadelich  
Georg Mark  
Kate Royal  
Justina Gringyte  
Donostiako Orfeoia

Bilbao | Bilbo  
Donostia | San Sebastián  
Vitoria | Gasteiz  
Pamplona | Iruña

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

## 2019/2020 Denboraldia: “Bidaia ezezagunean barrena”

- Robert Treviñok hirugarren denboraldiari ekingo dio zuzendari titular gisa ideia eta proiektu berriekin, epe luzeko begirada musikalari eta Orkestraren hobekuntza artistikoari jarraipena ematen. Oraingoan ere sei kontzertu-programa zuzenduko ditu eta Orkestra Pariseko Théâtre Champs-Élysées eszenatoki enblematikora eramango du.
- Ezezagunean barrena bidaia, baita horrek eragiten dizkigun emozioetan, beldurretan, ametsetan eta errealitateetan barrena ere. Denboraldi berriaren ardatza ideia horixe izango da, programa ugaritan egongo da presente eta bereziki nabarmenduko da lehen kontzertu-sortan, ezkutuko programa bat izango baitu. Bakarrik ezagutuko dugu Mikel Chamizoren obraren estreinaldia eta programak izango dituen protagonistak: Bilboko Koral Elkarteak, Mojca Erdmann eta Treviño bera. Hasiera hau aparteko esperientzia izango da, kontzertuaren amaierara arte argituko ez den inkognita.
- Elkano proiektuak bere zeharkaldia hasiko du. Orkestrak munduari egindako lehen biraren bosgarren mendeurrenaren oroitzan parte hartu nahi izan du bidaia honi lotutako bost obra alegorikoren enkargu eta estreinaldiarekin. Hiru denboralditan barrena garatuko da proiektua, zeharkaldiak iraun zuen bezainbeste denboran. Lehen estreinaldia Denboraldiaren lehen programan iritsiko da, Mikel Chamizoren obrarekin. Denboraldiko bigarrena Mikel Urquizarrena izango da.
- Bidaia horiek guztiek irudi propioa izango dute. Espresuki sortutako konposizio grafiko hauek programa bakoitzaren gaiari edo obra nagusiar oso lotuta daude. Ezezagunerantz doan bidaia baterako ontziratze txartelak izango dira.

## Abonu Denboraldia

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 2019/2020 Abonu Denboraldia irailaren 27an hasiko da Gasteizen eta hiri berean amaituko da 2020ko ekainaren 4an. Orkestrak hamarna kontzertu eskainiko ditu bere egoitzetako bakoitzean, Bilbo, Donostia (saio bikoitza), Gasteiz eta Iruñean, alegia. Guztira berrogeita hamar kontzertu baino gehiago emango ditu Abonu Denboraldiaren baitan.

### 1. PROGRAMAZIOA

Zuzendari titular izan zen lehen denboraldian, Robert Treviñok “erresistentzia, gatazka eta adiskidetzeta” bezalako ideiak proposatu zituen Xostakovitx eta Britten bezalako autoreen bidez. Bigarrenean, “aldaerak” hartu zituen ardatz, eta hiru konpositorengan jarri zuen arreta: Elgar, Rakhmaninov eta Dvorak. **Oraingoan bidaiaren ideia izango da argumentua, behin betiko bidaia (ez, ordea, azkena), baita hark eragiten digun hori guztia ere eta, azken batean, “Esperantza” edo “Esperoa”-ren ideia.** Gure titular Robert Treviñok hala dio: “Ezezagun zaigunaren aurrean jartzen garenean ditugun emozioak, beldurrak, ametsak eta errealitateak hartu ditugu inspirazio-iturri”. Hori guztia presente egongo da Denboraldiko programetan barrena, honelako obren bidez: Holsten *Planetak*, Mahlerren *Lurraren kantua*, Dvoraken *Mundu Berriaren Sinfonia*, Rimski-Korsakovren *Sheherazade*, Berliozen *Sinfonia Fantastikoa* eta Brucknerren 9. *Sinfonia* amaitu gabea. Guztiak dira emozionatzera, iradokitzen, amestera, bizitza edo heriotza zeharkatzera garamatzaten obrak, eta guztiek eraldatzen gaituzte.

Beste adibide bat Denboraldiko lehen programarekin iritsiko da, zeinean **Elkanoren lehen mundubiran** parte hartu zuten marinelen sentipenei bizia ematen saiatuko garen. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak bat egin nahi izan du gertaera honen bosgarren mendeurrenaren oroitzarekin, eta bidaia honi lotutako bost obraren enkargua eta estreinaldia egitea izango da bere ekarpena. Lehen estreinaldia Denboraldiaren hasieran izango da Mikel Chamizoren obrarekin, bidaiaren hasiera irudikatuko duena. Obra honen presentzia eta programan parte hartuko duten artisten izena baino ez ditugu ezagutuko oraingo honetan aldeztu aurretik.

**Treviño Denboraldi honetan:** “Zain” da lehen programaren izenburua. Denboraldi osoan lagun izango dugun ideia honekin bat etorriz, interpretatuko den programa ezkutukoa izango da, Elkano proiektuko lehen obraren estreinaldia salbu, Mikel Chamizok idatzia dena eta Bilboko Koral Elkarteak defendatuko duena. Badakigu, baita ere, Mojca Erdmann sopranoak parte hartuko duela programa honetan (Alemania eta Austrian Orkestrak berriki egin duen biran parte hartu du Erdmannek) eta Treviño izango dela zuzendaria. Besterik ez dugu jakingo. “Hau da unea ezaugarri hauek dituen programa bat mahaigaineratzeko. Bertigoa eta beldurra, baina baita konfiantza ere”, hori da Robert Treviñok eskatu duena. Interpretatuko den programaren gainontzekoa inkognita bat izango da eta esku-programa ez da kontzertuaren amaierara arte banatuko.

Inor epel utziko ez duen aparteko hasiera harrigarri honen ostean, Robert Treviñok batuta hartuko du Bartoken (aurtengo Denboraldian arreta berezia izango duen konpositoreetako bat) erreperitorioan murgiltzeko, baita Ravel eta Bruckner eta bere bederatzigarren

sinfonia, haren azkena, zuzentzeko ere. Treviñok sarri jotzen du Mahlerren soinu sinfoniko handira, eta Denboraldi honetan ere egingo du, autore alemaniarren *Lurraren kantu* sekulakoa eta “Berpizkundera” ezaguna zuzenduko baititu. Horretarako, Jennifer Johnston, Corby Welch, Kate Royal, Justina Gringyte eta Donostiako Orfeoia izango ditu ahotsen eremuan. Titularrak honako solistei ere egingo die harrera: Zimmermann (biolina) Bergen Kontzertuarekin, Julian Bliss (klarinetea) Coplanden Kontzertuarekin eta Yulianna Avdeeva (pianoa) Bartoken 2. Kontzertuarekin.

**Programazioaren beste alderdi batzuk:** Abonu Denboraldian bakarrik Orkestrak 32 obra interpretatuko ditu, zeintzuetako 9 inoiz jo gabekoak izango diren Orkestrarentzat, eta horietatik 2 munduko estreinaldiak: Elkano Proiektuaren harira sortutako Mikel Chamizoren eta Mikel Urquizaren obrak, hain zuzen.

Programazio berriak protagonismo nabarmena emango dio ahotsari lau programa handiren bidez (Elkano proiektua, *Planetak*, *Lurraren Kantua* eta “Berpizkundera”). Eta, gainera, Treviñok zuzenduko dituen programez gain, Orkestrak aspaldi interpretatu ez dituen obra oso ezagunak eskainiko ditu. Jarraitzaile leialenek gustuko dituzten baina aldi berean publiko orokorrari ere iristen zaizkion obrak dira, musika klasikoaz eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaz gozatzen hasi nahi dutenentzat primerako sarbidea. Honakoez dihardugu: *Mundu Berriaren Sinfonia* (Dvorak), *Planetak* (Holst), *Sinfonia Fantastikoa* (Berlioz) eta *Sheherazade* (Rimski-Korsakov).

**Euskal musika: gure lurraldeko sorkuntza, musikagileak eta interpreteak:** Elkano proiektua Mikel Chamizo eta Mikel Urquizari enkargatutako bidaiaren hasieraren irudikapenarekin hasiko da Denboraldi honetan. Biak sorkuntza-prozesu betean daude oraintxe, euren obrak irailan eta maiatzean, hurrenez hurren, estreinatu ahal izateko. Aurten 50 urte beteko dituen **Gabriel Erkoreka** ere izango dugu programazioan *Zuhaitz* obrarekin. Lan honen protagonista eszenatokietan Iparraldeko **Kalakan** hirukotea izango da. **Maurice Ravel**ek ere presentzia nabarmena izango du Denboraldian, bere sei obra joko baititu Orkestrak guztira. Ziburuko konpositorearekin estreinatuko da, hain zuzen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Pariseko Théâtre Champs-Élyséesen. Bestalde, aipatzekoa da, baita ere, hiru lurraldetako hiru abesbatza izango ditugula programazioan: **Bilboko Koral Elkarte**a, **Vocalia Taldea** eta **Donostiako Orfeoia**. Euskal zuzendari bat ere izango dugu, Gasteizko **Juanjo Mena**. Hain zuzen Vocalia Taldeko eta Kalakaneko kideak zuzentzeko igoko da podiumera.

## 2. ZUZENDARIAK

Robert Treviñok programazioaren zati handi batean hartuko du parte, sei programa zuzenduko baititu guztira. Baina beste izen handi batzuei ere utziko die podiuma, guztiak nazioartean itzal handia duten zuzendariak. Juanjo Mena gasteiztarra izango da zuzendari gonbidatueetako lehena. 90eko hamarkadan Euskadiko Orkestraren zuzendari elkartua eta ondoren BOSen titularrak izandakoa nazioarteko zirkuituko zuzendari ezagunenetakoa da gaur egun eta Cincinnati May Festivalaren zuzendari nagusia eta Espainiako Orkestra Nazionalaren zuzendari elkartua da. Menaren ostean beste hiru zuzendari kotsakratu izango ditugu gurean, **Pinchas Steinberg**, **George Mark** eta **Edo de Waart**, hain zuzen, eta **Mei-Ann Chen** estatubatuar-taiwandarrak itxiko du denboraldiko zuzendari gonbidatuen zerrenda. Azken hiruek lehendabizikoz zuzenduko dute Euskadiko Orkestra.

### 3. SOLISTAK ETA ABESBATZAK

Atal hau programazio guztietan izaten da zati erakargarrietako bat. Orkestrak programazio guztian barrena solista eta abesbatza gonbidatu garrantzitsu ugari izango ditu ondoan: hamaika bakarlari (instrumentua eta ahotsa), hiru abesbatza eta Kalakan hirukotea. Solisten artean **Frank Peter Zimmermann** bezalako biolinjole garrantzitsu bat gure egitarauan berriz (zazpigarrenez, dagoeneko) izatearen balioaz hitz egingo dugu lehendabizi. Beraren ostean, Orkestrak nazioarteko beste figura berri batzuk ere hautatu ditu, eta gure publikoari ezagutzera emango diogu belaunaldi berri bateko lehen mailako artista-sorta zabal bat. Biolinaren lekukoa gaur egungo interprete nagusietako batek hartuko du, **Augustin Hadelich**ek. Beste solista aipagarri batzuk hauek izango dira: **Julian Bliss**, maila altuko klarinetejolea eta prezio merkeko klarineteen diseinatzailea; **Jonathan Roozeman** biolontxelojolea; eta **Varvara** eta **Yulianna Avdeeva** pianojoleak. Ahotsen eremuan, pasa den urtean Alemania eta Austriara egin genuen biran ondoan izan genuen **Mojca Erdman**ez gain, **Kate Royal** ere izango dugu soprano bezala; **Jennifer Johnston** eta **Justina Gringyte** izango dira mezzosoprano gonbidatuak; eta **Corby Welch** estatubatuar tenorrek ere bisitatuko gaitu.

Hiru lurraldetako hiru abesbatzen presentzia ere nabarmentzekoa da: **Bilboko Koralkarteak** irekiko du Denboraldia eta Elkano Proiektuaren baitan Mikel Chamizok estreinatuko duen obrari ahotsa jarriko dio. Bilboko koruak Arabako **Vocalia Taldeari** emango dio lekukoa, eta Holsten munduan murgilduko da emakumeen abesbatza hau. Amaitzeko, **Donostiako Orfeoia**k Denboraldia amaituko du Mahlerren “Berpizkundea”-ren (2. Sinfonia) interpretazioarekin.

Artista gonbidatuen atala amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi Iparraldeko **Kalakan** hirukotea, Gabriel Erkoreka bilbotarraren perkusio eta orkestrarako *Zuhaitz* obra interpretatuko duena. Programa horrek ezin hobeto islatuko du lurraldeen arteko konexioa, Juanjo Mena gasteiztarra izango baita zuzendaria.

### 4. DENBORALDI BERRIAREN IRUDIA

**ACC Komunikazio Agentzia**, irudiaren sortzailea: “Euskadiko Orkestraren programa berriak bisualki deskribatzeko sortutako konposizio grafiko hauek Robert Treviño zuzendari titularrak 19/20 Denboraldirako hautatu duen “Esperantza” edo “Esperoa” kontzeptuari erantzuten diote: “Ezezagun zaigunaren aurrean jartzen garenean ditugun emozioak, beldurrak, ametsak eta errealitateak hartu ditugu inspirazio-iturri”. Horrela, original bakoitza zeharkatzen duen urratutako papera teloi baten atzeko sarbidea bezalakoa da, ate baten ertza, ezkutaleku baten silueta, ziurgabetasunerantz doan abenturaren hasiera, etorkizunerako bidaia horretan. Gure existentziaren mihisean marraztutako pitzadura horietan argazki-figurak ageri dira, pertsonaia anonimoak, monumentuak, planetak, keinuak, eraikin arkitektonikoak eta burezurak. Guztiek programa bakoitzaren tematika edo obra nagusiarekin lotura bilatzen dute, modu esplizituan batzuetan, era ez hain argian besteetan. Hortaz, esan dezakegu irudikapen grafiko bakoitza ezezaguneranzko ontziratze txartel bat dela, “bizitzan edo heriotzan barrena, itsasoan, zeruan edo kosmosean”. Hori eskainiko dio musikaren unibertsoak sari gisa laster itsasoratuko den Denboraldi zirrargarri honetan ontziratzea erabakitzen duten ikusle-entzuleei”.

## Orkestraren bestelako jarduerak

Denboraldi bakoitzeko Abonuko kontzertuak ez ezik, horiek baitira denboraldi bakoitzeko oinarrizko ardatza, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarduera kontzertuen katalogo oso anitz batez osatzen da eta, bertan, badira etxeko ekoizpen-zikloak zein beste festival garrantzitsuei eta kultur ekintza eta erakundeei lotutakoak. 50 kontzertuko Abonu Denboraldiaren eta atal garrantzitsu honen uztarketari esker, euskal talde honek ehun ekintzatik gora egingo ditu Denboraldi osoan. Programatzen diren musika-formatuetako bakoitzera egokitzeko gaitasun horri esker, Orkestrak harremanak lotzen ditu askotariko estilo, interes eta adinak dituzten entzuleekin eta, ondorioz, ondo errotuta dago gizartean.

**PARIS. Champs-Élysées Antzokia.** Parisko antzoki ezagunenetakoa den honek dagoeneko iragarri du 2019/2020 Denboraldia, eta bertan dago gure Orkestrak 2020ko urtarrilaren 25ean eskainiko duen kontzertua. Robert Treviñok zuzendutako kontzertu honetan, Orkestra Maurice Ravelekin eta Mahlerren *Lurraren kantua*-ren interpretazio handiarekin aurkeztuko da. Nazioartean sona handia duten orkestra ugari egongo dira antzoki honen urteko egitarauan. Bitxia den arren, eta Orkestrak Europan barrena bira ugari egin baditu ere, Parisera oraindik iritsi gabea zen. Hau izango da Denboraldi honetako nazioarteko erronka, beraz.

**SORIA. Otoño Musical Soriano.** Orkestra berriz joango da Soriara Odón Alonso orkestra-zuzendariak fundatu zuen jaialdian parte hartzeko. Orkestrak Donostiako Orfeoia izango du ondoan hitzordu honetan.

**Jaialdiak, beste ziklo batzuk: kolaborazioak eta sinergiak beste erakunde batzuekin**  
Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ABAO Bilbao Operaren Denboraldiarekin duen konpromisoari jarraipena emango dio. Bi obretan hartuko du parte aurtengoan: Denboraldia irekiko du G. Donizettiren *Lucia di Lammermoor*-ekin, eta otsailean itzuliko da G. Pucciniren *La Fanciulla del West* lanarekin. **Bilboko Musika-Música** jaialdira eta Donostiako **Musika Hamabostaldira** ere itzuliko da Orkestra. Eta erakunde garrantzitsuen urteurrenetan parte hartuko du: **Mondragon Corporation** (50), **Kursaal Auditoriuma** (20) eta **Eusko Legebiltzarra** (40). Musikaren eta zinearen arteko bide berriak arakatzeko jarraituko du **Zinemaldiaren** baitan, eta euskal musikan jarriko du arreta **Musikaste** jaialdian. Bilbora lekualdatu diren **BBVA Fundazioaren Fronteras del Conocimiento sarietan** iragarri berri da Euskadiko Orkestra izango dela sarien orkestra elkartu nagusia, eta, beraz, aurtengo ere han izango gara.

### **MUSIKA GELA: Euskadiko Orkestra hezkuntza- zein gizarte-arloan**

Familia Kontzertuak, Eskola Kontzertuak, Sentsibilizazio Tailerrak, Ikastetxeetako Tailerrak, Orkestraren egoitzara egindako bisitak eta askoz gehiago eskaintzen dugu, oso gaztetatik musika-zaletasunean hezteko eta musika-hezkuntza arautua babesteko. Musika Gelan, gainera, Orkestraren sen soziala ateratzen da, dibertsitate funtzionala duten entzuleentzako ekintzen bidez, eta dagoeneko eredu handiak eman ditu, adibidez, "Soinuen Mosaikoa" proiektu berritzailea, egun hainbat sari eskuratutakoa. **Atal honetan bakarrik, Euskadiko Orkestra 9.000 pertsonetara heltzen da urtero, eta igotzen jarraitzen du.**

### MIRAMONGO MATINÉAK

Euskadiko Orkestraren ganbera zikloa 28. denboraldira heldu da dagoeneko, formatu desberdin batean kalitatezko musika eskainiz. Musika unibertsala unibertso berezi batean, Orkestraren Miramongo egoitzako entzunaretoan.

---

Bukatzeko, Orkestrak eskertu egin nahi du bere askotariko ekintzak garatzen parte hartu duten erakunde guztien lankidetzeta eta babes handia. 7.000 abonatu eta, oro har, entzuleek, erakunde babesle eta laguntzaileek, kultur eragileek, hedabideek eta abarrek egingarri egiten dute Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarduna.

#### **Abonuen salmentari buruzko informazioa:**

Abonu berriak datorren maiatzaren 20tik aurrera jarriko dira salgai. Hiri guztietarako prezioa 70 €-an hasi eta 218 €-raino doa, kokapenaren arabera. Gizatalde batzuek tarifa bereziak dituzte. Abonuak Orkestraren webgunearen bidez ([euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)) edo telefonoz (943 01 32 32) eros daitezke.



EUSKADIKO  
ORKESTRA



EUSKADIKO  
ORKESTRA



*Ingeteam*



**EL CORREO**

**EL DIARIO VASCO**



euskadikoorkestra.eus